



Foru Gobernu Kontseiluaren “Energia iraunkortasuneko ekintzak bultzatzeko dirulaguntzen lerroaren oinarri arautzaileak” Foru Dekretuaren proiektua onartzea; horren bitartez, maiatzaren 24ko 41/2016 Foru Dekretuak onartutako oinarriak aldatu egingo dira.

Martxoaren 5eko 86/2018 Foru Aginduaren bitartez, Foru Gobernu Kontseiluaren “Energia iraunkortasuneko ekintzak bultzatzeko dirulaguntzen lerroaren oinarri arautzaileak” Foru Dekretuaren proiektua egiteko prozedura hasi zen, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 24ko 41/2016 Foru Dekretuaren bitartez hasierako onarpena jaso zuena.

Aipatutako proiektu horren helburua ondoko alderdiak arautzea da:

Lehen artikuluan.- Xedea

Bigarren artikuluan.- Diruz lagun daitezkeen jarduketak

Hirugarren artikuluan.- Baldintza gehigarriak

Laugarren artikuluan.- Baliabide ekonomikoak

Bosgarren artikuluan.- Onuradunak

Seigarren artikuluan - Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Zazpigarren artikuluan.- Emakida prozedura Eskaerak baloratzeko eta dirulaguntzak emateko irizpideak. Diru laguntzen zenbatekoa.

Zortzigarren artikuluan.- Eskaerak izapidetzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa Eskaeren epeak eta epe barruan ez ebaztearen ondorioak.

Bederatzigarren artikuluan.- Ordainketak. Onuradunak dirulaguntza jasotzerakoan lortu nahi zen helburua lortu izana justifikatzeko modua eta epea.

Hamargarren artikuluan.- Ez betetzea eta itzultzea

Hamaikagarren artikuluan.- Babesa

Hamabigarren artikuluan.- Aldaketak

Hamahirugarren artikuluan.- Onuradunaren betebeharrak

Hamalagarren artikuluan.- Ordezko aplikazioa

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren 12. artikulua, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura onesten duenak, ondokoa arautzen du: “testu arauemaileen proposamenak idatzi ondoren, prozedura hasteko ebazpena eman duen organoaren aurretiazko onarpena jaso beharko dute proposamenok, bidezkoak diren negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideei ekin baino lehen.”

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT:



Lehenengoa. Foru Gobernu Kontseiluaren “Energia iraunkortasuneko ekintzak bultzatzeko dirulaguntzen lerroaren oinarri arautzaileak” Foru Dekretuaren proiektu hau onartzea. Oinarri horiek Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 24ko 41/2016 Foru Dekretu bidez onartutakoak aldatuko dituzte; azken horiek ebazpen honi atxiki zaizkio, eranskin gisa.

Bigarrena. Foru Gobernu Kontseiluaren “Energia iraunkortasuneko ekintzak bultzatzeko dirulaguntzen lerroaren oinarri arautzaileak” Foru Dekretuaren proiektuaren zirriborroa prestatzeko prozedura bideratzeko izapideekin jarraitzea, Ingurumen Iraunkortasuneko Zerbitzutik, Hirigintza eta Ingurumen Zuzendaritzak eskatuta.

ERANSKINA

Energia iraunkortasuneko ekintzetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak

1.- Xedea

Oinarri hauen helburua energia iraunkortasunean lagunduko duten ekintzetarako dirulaguntzak ematea arautuko dituzten baldintzak erregulatzea da, Euskadiko toki erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legean adierazitako eskumenen esparruan.

2.-Diruz lagun daitezkeen jarduketak motak

1. Inbentario energetikoak egitea, eraikin eta ekipamenduen, parke mugikor eta argiteria publikoko instalazioena, kontsumoen kontrolarena, ikuskaritza energetikoena, eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak, jardun energetikoen planak eta hiri mugikortasuneko planak.
2. Monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea kontsumitzen den energia benetako beharrezkotasunetara egokitzeko.
3. Energia elektrikoaren kontsumoa murriztea ekarriko duten kanpo argi publikoetan jarduketak eta eguzki argiztapen ekipamenduak; agiri bidez frogatu behar dira, eta kanpoko argi instalazioen energia efizientziaren araudian eta beraren jarraibide tekniko osagarrietan (1890/2008 ED) ezarritako preskripzioak bete behar dituzte (ezinbestekoa da betetzen direla adieraztea).
4. Energia berriztagarrien aprobetxamenduko ekipamendu eta instalazioak, elektrizitatea sortu zein aprobetxamendu termikoko sistemak barne: eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa.
5. Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihidraulikoa aprobetxatzeko, baita erabilera publikoko karga elektrikoak azpiegiturak ere.
6. Ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatzea, bizikletak barne. Kargatzeko puntuak erabilera publikora edo erakunde onuradunaren ibilgailuetan erabiltzera bideratuko dira.
7. Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako.

3.-Baldintza osagarriak

1. Diruz lagundu ahal diren gastuak izango dira, soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaera daukatenak eta behar-beharrezkoak direnak, eta BEZa.
2. Erakundeek gehienez bi jarduketatarako laguntza eskatu ahalko dute.



3. Diru laguntzaren xedea instalazioak edo ekipamendua badira, erakunde onuradunak beraien mantentze lana gutxienez urtebeteko eperako bermatu beharko du. 6. motako jarduketan kasuan, mantentze kontratu bat sinatu beharko da.
4. Oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzak bateragarriak dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publikoek zein erakunde pribatuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten diru laguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin.
5. Diru laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru laguntzekin eta diru sarrerekin batera, ezin da izan jardueraren kostua baino gehiago.
6. Jarduketa mota guztietarako erabilgarri dagoen zenbatekoa mota horien artean modu proportzionalan banatuko da mota bakoitzari egokitutako dirulaguntzen multzoaren kopuruari dagokionez, aurkeztutako eskaeren eta gehienezko zenbateko aplikagarri eta ehunekoen arabera.
7. Erakundeek beren eskaeretan gasturako zer programatzen duten, eta esleipen orokorra zenbat den, halaxe banatuko dira laguntzak urteroko bakoitzeko. Izapidetzeak irauten duen bitartean, berriz ere esleitu ahalko dira emandako dirulaguntzen urterokoak, egokitu daitezten erakunde onuradunek egiaztatzen duten gastua gauzatzearen erritmo errealerara.
8. Erakunde onuradunek diruz lagundutako jarduketak behar bezala eta erabat burutzeko behar diren izapide guztiak egin behar dituzte eta behar diren baimen guztiak lortu behar dituzte, lanak hasten direnetik behin betiko jaso arte.
9. Diru laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikulua aplikatuz, ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzen baldin badira, diru laguntzari dagokion xede zehatzari bideratu beharko dizkio ondasunak onuradunak, bi urteko epean gutxienez.

4.- Baliabide ekonomikoak

Kasuan kasuko deialdiak zehaztuko du oinarri hauen bidez deitutako diru laguntzak guztira zenbatekoak izango diren eta aurrekontuko zein partidari egotziko zaizkion.

5.- Onuradunak

Diru laguntzak jaso ahalko dituzte 20.000 biztanle baino gutxiagoko Arabako Lurralde Historikoko udalerrri eta kontzejuek.

6.- Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

Dirulaguntzen eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, kasuan kasuko deialdiak ezarritako epearen barruan.

Eskaerarekin batera I. eranskinean ezarritako agiriak aurkeztu behar dira.

7.- Dirulaguntza emateko prozedura Eskaerak baloratzeko eta diru laguntzak emateko irizpideak. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzak nori eman lehiaketa bidez ebatziko da. Eskaerak baloratzeko irizpide hauek aplikatuko dira:



- A) Proposatutako ekintzaren kalitatea eta bideragarritasun teknikoa; 40 puntu gehienez.
- B) Inbertsioaren efizientzia, honela neurtuta: energiaren aurrezpena kostuaren erlazioan; 30 puntu gehienez.
- C) Ekintzaren berrikuntza eta esperientzia pilotua izateko aukera; 10 puntu gehienez.
- D) Iraunkortasuneko edo energia aurrezteko eta energia efizientzia hobetzeko toki erakundeak onartutako planaren barruan egon dadila ekintza; 10 puntu gehienez.
- E) Erakunde onuradunak 500 biztanle baino gutxiago izatea: gehienez 10 puntu.

Diruz lagundu daitekeen gehienezko ehunekoa jardueraren kostuaren arabera kalkulatu da. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua gehi BEZa da jardueraren kostua.

Gutxienez balorazio hauek ez dauzkaten jarduketak ezetsiko dira:

- 28 puntu 1, 2, 3, 5 eta 7. motetako jarduketetarako.
- 50 puntu ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntu eta energia berriztagarrien aprobetxamenduko instalazio eta ekipamenduetarako (4 eta 6 motak).

Aurkezten diren proiektuak baloratu ondoren, lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran sailkatuko dira; diru laguntzak hurrenkeran horretan emango dira, harik eta deialdirako ezarritako hornidura amaitu arte.

Onuradunak ebazpenaren jakinarazpena jasotzen duenetik 10 egun baliodunetan diru laguntzari idatziz uko egiten ez badio, ebazpenean ezarritakoa onartu duela pentsatuko da.

Hornidura agortu ondoren diru laguntzarik gabe geratzen diren eskaerak poltsa batean sartuko dira puntuazioaren arabera hurrenkeran. Eskatzaile hauek diru laguntza jasoko dute hasieran banatutako funtsetako batzuk erabiltzen ez badira, hau da, onuradunen batek bere diru laguntzari uko eginez gero edo behar bezala frogatzen ez badu ezarri bezala erabili duela.

8.- Eskaerak izapidetzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa. Eskaeren epeak eta epe barruan ez ebaztearen ondorioak.

1. Diru laguntza hauek lehiaketa bidez emango dira; lehiaketa agintzeko eta izapidetzeko eskumena Ingurumeneko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak dauka.

2. Eskaerak Balorazio Mahai batek aztertuko ditu. Hauek izango dira mahaiko kideak: Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria, lehendakari gisa; Ingurumen Iraunkortasunaren Zerbitzuaren burua, kide gisa; eta Zuzendaritzako funtzionario bat, idazkari gisa.

3. Ingurumen eta Hirigintza Sailak, egoki irizitako kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

4. Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, Balioespen Mahaiak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuta.

5. Eskatzaileei ez zaie eskainiko entzunaldiko izapiderik, haiek aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik ez direlako aintzat hartuko ebazpenean.

6. Ebazpenean ageri beharko dira dirulaguntza jaso duten eskatzaileak, dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, ukitutako jardura edo programa, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta emateak dakartzan baldintzak, baita gainerako eskaeren berariazko ukoa ere.



7. Dirulaguntza eman edo ukatu zaien jakinaraziko zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako moduetakoren batean.

8. Kasuan kasuko deialdian ezarriko dira ebazpenerako eta jakinarazpenerako epeak. Epealdiaren barruan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsitzat jo behar dira.

9. Ebazpenak administrazio bidea bukatuko du, eta horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, jakinarazten denetik bi hileko epean, administrazioarekiko auzi jurisdikzioa arautu zuen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

9.- Ordainketa. Onuradunak dirulaguntza jasotzerakoan lortu nahi zen helburua lortu izana justifikatzeko modua eta epea.

Diru laguntza bat ordaindu baino lehen, haren xede den jarduera egin dela justifikatu behar da. Diru laguntza ordaintzeko II. eranskinean aipatzen den dokumentazioa aurkeztu behar da. Kasuan kasuko deialdian ezarriko da hura aurkezteko gehienezko epea.

Justifikatu beharreko aurrerakinak egiteko aukera ematen da, foru araudian ezarritakoarekin bat etorritik; horrela, erakunde onuradunek ordainketa bi fasetan justifikatu ahalko dute. Kasu honetan, lehenengo fase batean diru laguntzak estaltzen ez duen jarduketaren kostuaren zatia justifikatuko dute, eta Arabako Foru Aldundiak diru laguntza justifikatu beharreko aurrerakin kontzeptupean ordainduko du. Erakunde onuradunak gainerakoaren ordainketaren ziurtagiria aurkeztu beharko du hilabete bateko epean, diru laguntzaren zenbatekoa jasotzen duenetik zenbatuta.

10.- Oinarriak ez betetzea eta diru laguntza itzultzea.-

Oinarriak betetzen ez badira, esleitu edo ordaindu den dirua edo ordaintzeko dagoena eskuratzeko eskubidea galdu dela adieraziko da ebazpen baten bidez. Ebazpen berean adieraziko da ordura arte jasotakoa eta berandutze interesak itzuli beharko direla. Gainera bidezko diren ekintzak egin ahal izango dira. Diru kopuru horiek sarrera publikoak izango dira legezko ondorioetarako.

Ondoko kasuetan oinarriak ez dira betetzen:

- a) Helburuak frogatu beharra ez betetzea.
- b) Dirulaguntza eskuratzeko eskatutako baldintzak bete gabe.
- c) Dirulaguntza helburu baterako eskatu eta horretarako ez erabiltzea.
- d) Onuradunak ez betetzea diru laguntza jasotzeagatik jarritako baldintzak.
- e) Kontrol edo egiaztatze jarduerak oztopatzea edo galaraztea.
- f) Jarduera burutzeko behar den baino diru gehiago jasotzea. Kasu honetan, jardueraren kostuaren gainetik eskuratzeko soberakina itzuli beharko da, bidezko berandutze interesak gehituta.
- g) Xede bererako beste diru laguntzaren bat jaso dela ez aitortzea.

11.- Babesa

Dirulaguntza jaso duen jarduera dela-eta egiten diren argitalpenetan, liburuxketan edo bestelako publikitate modu guztietan Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak emandako diru laguntzaren berariazko aipamena egin behar da. Horrez gainera, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatuko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidetasunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabiliko dira.



12.- Aldaketak

Dirulaguntza emateko eta baloratzeko kontuan hartutako 7. oinarriko inguruabarretako bat aldatzen bada, hura emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

Deialdi honetan emandakoen ondoren edozein erakunde publikok edo pribatuk laguntza edo dirulaguntzak lortuz gero, eta horren ondorioz diruz lagundutako kopuruak jardueraren kostua gainditzen badu, orduan baliteke emakida ebazpena aldatzea eta jasotako zenbatekoak, guztira edo partzialki, itzuli behar izatea, dirulaguntza ordaindu zen unetik kasuan kasuko atzerapen interesak barne.

13.- Onuradunaren betebeharrak

Hauexek dira onuradunaren betebeharrak: Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Herri Kontuen Epaitegiak eta beste organo batzuek eskatzen dioten informazio guztia ematea; otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzienak, 5.2 artikuluan ezarritako betebeharrak.

14.- Ordezko aplikazioa

Oinarri hauetan ezarrita ez dagoena Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak –Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartzekoa– arautuko dute.



I. ERANSKINA

Dirulaguntza eskaera (III. Eranskineko inprimakia erabiltzea gomendatzen da).

- Erakunde eskatzailearen datuak (izena, IFZ, helbidea, telefonoa, e-maila...).
- Harremanetarako pertsonaren datuak (e-maila, izen-abizenak, kargua, telefonoa, ...).
- Ekintzaren izenburua, guztirako aurrekontua, eskatutako diru laguntza.
- Eskatzailea udala bada, alkateak sinatu behar du; kontzejua bada, errejidore-lehendakariak.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko ziurtagiriak (III. Eranskineko eredu erabiltzea gomendatzen da).

- Eskatutako ekintza egitea onartzeko osoko bilkurak, administrazio batzarrak edo auzokoen batzarrak hartutako erabakiaren egiaztatzea eta aurrekontuan diru erabilgarri dagoelako egiaztatzea.
- Beste erakunde batzuei xede berarekin diru laguntza eskatu zaien edo ez eta, baiezkoan, eskuratu den edo ez agerrarazten duen ziurtagiria. Erakundea eta zenbatekoa zehaztu beharko dira.
- Orube edo eraikinen bat okupatu edo erabili behar izanez gero, hura udal planeamenduko araudiarekin bat datorrela eta higiezia edo orubea baliagarri dagoela egiaztatzen duen agiria, udaleko alkateak eta/edo toki erakundeko lehendakariak ontzat emandakoa.

Azalpen memoria

- Proiektuaren deskripzioa, egungo egoerari buruzko memoria eta zer egiteko asmoa dagoen adierazten duen proposamena. Jarduketa justifikatzeko kalkuluak.
- Lanen programa, kronograma, burutzapen epealdia, aurreikusten diren hasiera eguna eta amaiera eguna.
- Aurreikusitako inbertsioaren energia aurrezpenaren eta efizientziaren justifikazioa.
- Jarduketak berrikuntza dakarrela alegatuz gero, horren justifikazioa; energia aurrezteko eta energia efizientzia hobetzeko planean proposatutako ekintzaren aipamena.
- Toki erakundeko biztanle kopurua, eta datuaren iturria.
- Proiektuaren helburua kanpoko argiteria bada, kanpoko argi instalazioen energia efizientziaren araudian (1890/2008 Errege Dekretua) eta beraren jarraibide tekniko osagarrietan ezarritakoa betetzen delako adierazpena.

Aurrekontua

- Aurrekontua, partidaka xehatuta eta banakatuta
- Urteko zenbatekoen banaketa
- Finantzaketa plana
- Aurrekontuan erabilgarri dagoen kopurua
- Eskatutako beste diru laguntza batzuk (erakundea, zenbatekoa)
- Adjudikazioak oinarritzat hartutako eskaintza ekonomikoak; gutxienez hiru izango dira 40.000 eurotik gorako obren kontratuetan (BEZik gabe) eta 15.000 eurotik gorako hornidura eta zerbitzuen kontratuetan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31.3 artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 131. artikulua ezarri bezala. Eskaera egiteko unean ez badago eskaintzarik, gastua justifikatzeko unean aurkeztu beharko dira.



II. ERANSKINA

Ordaintzeko eskaera

- Erakunde eskatzailearen datuak (izena, IFZ, helbidea, telefonoa, e-maila...).
- Harremanetarako pertsonaren datuak (e-maila, izen-abizenak, kargua, telefonoa, ...).
- Ekintzaren izenburua, gutzirako aurrekontua, emandako dirulaguntza.

Justifikazio kontua eta erantsitako dokumentazioa

- Piel* edo idazkariak emandako ziurtagiria, emandako dirulaguntzaren helburua eta xedea bete direla ziurtatzen duena; horrez gainera, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste dirulaguntza edo diru sarrerarik egon den zehaztuko du, kopurua eta jatorria aipatuz.
- Piel* edo idazkariak emandako ziurtagiria, diruz lagundutako ekipamendu edo instalazioa gutxienez urtebetez mantenduko dela bermatzeko moduari buruzkoa, horrelako jarduketak direnean.
- Mantentze kontratua, sinatu baldin bada; ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko jarduketetarako nahitaezkoa da (6. mota).
- Jardunaren justifikazio memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena. 4.000 eurotik gorako diru laguntzetan, atal hauek sartu beharko dira:
 - Egindako ekintzen deskripzioa. Eskuratutako ibilgailu elektrikoaren edo instalatutako ekipamenduen marka eta modelo.
 - Jarduerak eragindako gastuak eta inbertsioak sailkatuta ageri diren zerrenda, datu hauekin: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman den eta, hala badagokio, ordainketa eguna. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira.
 - Instalatutako ekipamendu guztiak identifikatuko dituen plano edo krokisa. 25.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan, obra amaierako plano.
 - Ibilgailu, ekipamendu edo instalazioaren argazkiak
 - Instalazioaren eguna. Denborazko garapena eta gorabeherak.
 - Lortutako energia aurrezpenaren eta inbertsioaren efizientziaren justifikazioa.
 - Argiteria publikoan egin beharreko jarduketaren kasuan, azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretua betetzearen justifikatzea, kanpo argiteria publikoko instalazioetan energia efizientziako araudia onartu zuena, eta EA-01etik EA-07rainoko jarraibide tekniko osagarriak betetzearen justifikazioa.
- Obraren azken ziurtagiria, enpresa instalatzaileak emana (4.000 eurotik gorako diru laguntzetarako bakarrik); edo, 1 eta 5. motetako jarduketaren kasuan, egindako dokumentuen kopia.
- Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu behar izan dituen eskaintza ekonomikoak, baldin eta eskaera egiteko unean aurkeztu ez baditu.
- Jardueran egindako gastu guztien faktura xehea (originala edo kopia konpultsatua).
- Ordainagiria (originala edo kopia konpultsatua). Jardunaren kostu osoa hartu ahal du barruan, edo dirulaguntzak estaltzen ez duen zatia baino ez. Kasu horretan, erakunde onuradunak



dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainagiria hilabeteko epean aurkeztuko du, hura jasotzen duenetik zenbatuta. Hauek onartuko dira ordainagiri gisa:

- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
 - Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
 - Dagokion udalaren kontu hartzailetza organoaren ziurtagiria.
- Hala badagokio, itzulketaren ordain gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; bai eta horietatik eratorritako interesena ere.